

Paulo Agirrebaltzategi

Eusenorreko kidea

Auzia eta epaia

■ Hirugarren astea du, eta badirudi oraingoan ez duela etenik izango HBren Mahai Nazionaleko epaiketak. Bideoaren auzia agertu baino askoz lehenagoatik eta luzaroan ahalegindu da zenbait indar politiko eta sozial hone-lako juzioaren bila; grinatsu egon dira horrelakoak epai-keta honen zain. Bideoaren aitzakia tarteko, lortu dute helburua: Mahai Nazional osoa Madrigo Auzitegi Gorenak juzgatzea. Horrelakoan ametsa da seguruenik, eredu-ko epaiaren bidez behingoz eta betirako garbi erabakita -eba-kita, epaituta- uztea alde batekoen eta bestekoen arteko tartea -leizea-, horrela gatazka gaindituztat emateko ustez.

Baina eta kondenatuko ez balituzte? Horren bila ibili direnentzat -komunikabide, kazetari nahiz politikari izan- eskandalua izango da, aldeaz aurretik kondenatuak dituz- tela baititruki. Farisaikoa izango da, baina, eskandalua: horrexen bila dabilenarena, alegia.

Irakurri berria dut liburu oso adierazgarri bat: ¿Proceso al jurado? Conversaciones con Miguel Castells. Itsasondo-ko Mikelen epaiketaren inguruko elkarrizketa. Eva Forest-ek auzipetuearen abokatuari egina. Hasieratik amaierrari- no salaketa gogorra ipintzen du Castells-ek: juzio parale- loa eraikia izana, alegia, batez ere zenbait ingurune poli- tiko eta mediatikoren aldetik, eta aldeaz aurretik mutila kon- denatu izana. Oso larria da hori benetako demokrazian, justizia demokratikoari begira... Antzeko zerbitz gertatzen ari da Mahai Nazionalaren kasuan ere...

Zalantzarik gabe, bi kasuak -kausak- guztiz ezberdinak dira. Batean, itxuraz delito nabarmena zatekeen gertaka- ria zegoen tartean. Bestean, delito-itxurarik ez duen gerta- kariagatik ari da juzgatzen auzitegia. Jurista ez naizen honen iritziz, prozesuak berak ez du inolako itxurarik, zuzenbide eta eskubide demokratikoen ikuspegitik begira- tuta, eta sinestezina gertatzen zait bideoaren kontuagatik kondena ditzaketarik. Epaiketaren aurkako sinadura eskatu zidaten duela aste pare bat. Ez nuen sinatu, baina ez agiriarekin bat ez nentorrelako; bestelako arrazoiak ez dira hemen agertzeokoak. Hona orain nire beranduko sina- dura.

Baina eta mahaikide guztiak kondenatu eta espetxera- tuko balituzte? Etsipena izango da hainbaten erreakzioa, hitz horrek dituen adiera batean edo bestean, eta horrek ondorioz dakartzan jarrera ustekabeko eta guzti. Baina alde batekoen eskandalua nahiz bestekoen etsipena antzuak izango dira, epaiaren zain geratuz gero, eta mahaikideen prozesuak, auziperatzeak eta juzioak berak adierazten duen eta dagoeneko ekarri duen kinka politiko berriaz ez jabetzera eta hortik atera beharreko ondorioak ez ateratzera.

Epaiaren azken epaia auziperatuen aldekoa ala aurka- koa izango den benetan garrantzizkoa da, jakina. Baina

epaiaren aurretik auzia egon da eta dago, Mahai Nazional osoa epaiaren aurrean ipini duena; besterik gabe histori- koa eta larria da Euskal Herriaren historia luzean mahai- kide guztiak auziperatu eta tribunalaren aurrean ipini izana bera. Eta are adierazgarriagoa eta larriagoa da bideoa- ren auzi horrengatik auziperatu izana mahaikide guztiak: orain arte eramandako konponbide guztien porrota adie- razten duelako, besteren artean. Auzia bidegurutze horre- taraino bultzatu eta eraman duten botereek -politikoez, judizialez eta mediatikoez-

beren gain hartu beharrean dira horren erantzukizuna. Handiak izango dira seguruenik horren ondorioak - eta aldeaz aurretik ikusten ez errazak -, mahaikideen aldekoa nahiz kontra-koa izan epaia.

Horrengatik, atzera begira geratu gabe eta epaiaren epaia zein izango den zain egon gabe, ordua da oraindixetik aurrera begira jartzea, auziak eta juzioak dagoeneko hemengo gatazka bidegurutze berrian ipinia dutela uler- tuz. Mahai Nazionalekoen kondenazioa sektore biolentoen bazterte-bidean urrats guztiz garrantzizkotzat hartzea, besterik gabe, nahiz horien absolutioa botere errepresibo- en gaineko garaipen funtsezkotzat jotzea, besterik gabe, ez da izango zentzuzkoa. Baina garbi ulertuz gero, aspaldi- txoko auziaren eta egun hauetako epaiketaren ondoren, gatazkaren parametroak inola ere ez direla lehengoak izango, ez alde batekoentzat eta ez bestekoentzat, orduan badirudi prozesu hau guztia erabakigarria -gutxienez argi- garria- izan daitekeela aurrera begira.

Auziaren sua Euskal Herriko bazterrak erretzen ari da aspalditxotik, piztu zutenetik bertatik, eta epaileek beren azken epaia eman aurretik. Aldeko nahiz aurkako epaia eman, horiek ez dira gauza izango sua itzaltzeko, are gutxiago erretako lurra eta giroa berritzeko. Politikariei dagokie politikaren lur erre berritzeko ur bizigarria ekar- tzea eta giro politiko kixkaldua freskatzeko aire berria zabaltzea.

Epaiaren aurretiko auziperatzeak eta juzioak eragin duten astindu politiko-soziala abiapuntu eta aukera ona da, beraz, orain arteko politikaren porrota ezagutzeko, gatazkaren sakonera joateko eta horren konponketari bide berriak irekitzeko, Euskal Herriaren autodeterminazio- eskubidea onartzetik abiatuz.

Horrelako prozesu politiko berririk lehartarazteko balio- ko balu Mahai Nazionalekoen auziperatze zentzugabe horrek eta ondorioz etorriko den epai dramatikoak -mahi- kideen aldekoa nahiz kontra-koa izan, bietan dramatikoa-, orduan esan ahaliko genuke agian mesedegarria izan dela azken hilabete luze hauetan egin behar izan dugun bidaia labirintiko galduta hau, HBren zuzendaritza osoa epaiaren aurrean ipini duena.■

Ur Apalategi



Futbola, burtsa eta politika

Zutabe honen ardura hartu nuenetik maiz eskatu didate ingurukoek (oso hurbileko dudan norbaitek, dena aitortu behar badut) zergatik ez diodan oraindik inolako kritika izpirik ere egin futbolzaletasunari, bitartean hainbat gauzari nire hitz pozitoisuek botatzera ausartzen nintzelarik. Bada, gaur lehenengoz futbolaren mundua aipagai izango dut lerroetan, baina nire oso hurbileko horren atsekaberako ez baitetzpada kritikatzeko asmoz.

Har ditzagun batetik iganderoko futbola eta bestetik Wall Streeteko burtsa. Zer dela-eta, irra- ti zein zelibistan futbolaren inguruko aipamen bat egiten den bakoitzean bolumenaren botoitxo- ari goraka eragiten diogu askok, burtsaren balo- reen gora-behera etengabeek, aitzitik, ipar-hai- zeak baino hotzago uzten gaituztelarik? Hona hemen azalpen bat, beste batek adina balio due- na: futbolk gauzak alda daitezkeenaren itxaro- pena sortzen duelako (fitxaketa berri bat = egoera hobea), eta batez ere zori aldaketa horien irabaz- leak eta eragile nagusiak gu geu garenaren ilu- sioa pizten duelako (futbol talde baten garaipe- nak ez luke inongo zentzurik afizioa hor ez balego ospatzeko eta egia da, baita ere, talde batek segi- tzaileen berotasuna beharrezkoa duela parti- duak aurrera eramateko). Burtsan, ordea, dena alderantziz gertatzen da: gauzak aldaezinak diru- dite (akzioek gora ala behera egin, burtsa bera da beti garailea), eta gu, akzioetan ezetik sentim- duetan behintzat aberats garenok, ez gara inor burtsaren joerengan eragin nimitsoenik ere edu- kitzeko, ez eta burtsaren euforiarik etekin perso- nalik ateratzeko ere -nahiz eta etekin hori, futbo- lean bezala, emozionala baizik ez izan-.

Nago azken denboraldian politika ez ote dago- en, garai batean ez bezala, burtsaren fenomeno- tik hurbilago futbolarenetik baino. Mahai Natio- naleko kideei egiten zaien auzia ez al da politika futbola bezain ilusionagarria dela sinistu nahi dutenen aurkako auzia?

Kornerra

Mikel Elorza

Epaiketa amaitzen

■ Jende asko harritu du HBren defentsa-estrategi- a. Defentsa juridiko hertsia samarra egin da. Roberto Sampedro komunikazio arduraduna zen, hor ez da zakurik ez dagoenaren bizkarrera bota, baina uneka auziaren izaera politiko-etikoa bazter utzi da defentsa bide teknikoetan planteatuz. Poli- tikoagoa espero zen, edukien zuzentasunaren eta bideoa zabalduta izanaren aldarrikapen fermuagoa.

Ez da, baina, amore ematea. Lehen ere kartzelan egon dira honengatik, beren erantzukizunei ihes egin gabe. Eta, gainera, HBk igerni egin zuen. Plante- amenduak, beraz, zuzena dirudi: epaiketa instru- mentu juridikoa da, eta erantzun juridikoa eman zaio, salaketaren funsgabetasuna biluzteraino. Defentsa politikoa eginen da eremu politikoa. Arris- ku bakarra du honek, eta mahaikideen kontzientzia partikularrei dagokie: planteamendu juridiko sofle- kin galtzen bada, epaiketan defentsa politikoa egite- ko aukera galduta izanen dela.

L A P I H I T Z A

